

BAIONAKO BILTZARRA (1964)

Jean-Louis Davant

Zuberoako kateximak salbu, euskaraz irakurri ditudan lehenbiziko liburuak izan ziren *Alos torrea*, *Kattalinen gogoetak* eta *Leturiaren egunkari ezkutua*. 1958ko hasieran zen. Laster, udaberrian, Txillardegiren eta Jone Forcada emaztearen ezagutzak egin nituen Donostian, Pierre Charritton-en bitartez. Ondoko irailean Aljeriara soldadu joan behar izan nuen, eta handik itzulirik 1960ko abenduan, Hazparneko "Saint Joseph" kolegioan irakasle sartu bainintzen 1961eko lehen egunetan, han aurkitu nuen Txillardegi, Donostiako lantegian egin zuen grebaren ondotik iheslari etorria. Egun zenbaitez gurekin egonik, B.A.B. horretan kokatu zen, familia hara bilduz.

1963an Hazparnera itzuli zen, ez egoitzaz, baina lanez, Benito del Vallek eta Julen Madariagak sortutako olan heipe metalikoen planak eginez inguruko laborarien mesedetan. 1964-65 ikasturtean, irakasle lanetan ere sartu zen, gure Laborantza Eskolan matematikak irakatsiz, eta sekulan ikusi dudak kasu bakarra, matematikak maitatu zituzten harekin ikasle guziek! Zoritxarrez, iraupen gutikoa izan zen miraria, zeren, 1965eko hasieran, Paueko Prefetak Euskal Herritik haizatu zuen Benito del Valle-rekin batera, Baionako auzitegian epaituak zirelarik Eneko Irigarai eta Julen Madariaga, lauak ETAko arduradunak zirelakoan. Hilabete berantago Iruñean atxilotua zen gure bertze erakasle bat, Christiane Etchalus. Une gogorak denontzat, baita gure ikastegi gaztearentzat. Laster handik kanpoa zuen gure zuzendariak, Pierre Charritton-ek euskal politika egiteaz akusatua. Hitz dizuet gutienik egiten zuena zela! Aker pekatzailea izan zen.

Arte horretan ez zen lo egona Txillardegi kulturaren alorrean ere, Euskara Batuari atea ireki baitzion Baionako Biltzarrari esker, 1964eko abuztu ondarrean (29-30). Horretarako urte betez astero lan egin genuen rue des

Cordeliers karrikako 14an Euskal Idazkaritzak Enbataren aldamenean alokatzen zuan aretoan, zenbaki horretako lehen solairuan. Idazkaritza hori sortu genuen iparraldeko abertzale batzuek, hegoaldetik ihes etorri berriekin, kultura lanetarako.

Euskara Batuari buruzko lehen urrats horietan, Txillardegi genuen gidaria. Parte hartzaile batzuk izendatzen ditut laster ikusiko den dokumentu batean, hori baita 1964eko abuztuaren 29an Biltzararen irekitzeko egin nuen mintzaldia, orain arte publikatu gabea: Solaun, Monzon, Txillardegi, Eneko Irigarai, Andiazabal eta Idiart (Roger) apaizak. Gainera, bilkura zenbaitetan izan ziren Julen Madariaga, Jean Hiriart-Urruty eta Pierre Lafitte, bi apaizak azkenera, baina erabakiorra izan zen guretzat haien laguntza.

Ber tokian egin zen, Pierre Lafitte-ren babespean, Baionako Biltzarra, nagusiki hegoaldeko idazle gaztez hornitua, nahiz iparraldetik ere bildu zen talde polita. Baina Biltzarraz beraz ezin dizuet gauza handirik erran ezen, sarrerako mintzaldia eginik, ahal bezain laster Hazparneruntz alde egin nuen emaztearen bila: haur ukaiteko minak hasiak zituen eta arrats hartan agertu zitzaigun, Baionan, gure lehen alaba! Huts egiten nuen bilkura bakarra, eta ez arrazoirik gabe. Dena dela, hor dago Biltzararen lana, eta Txillardegiri zor diogu nagusiki, Lafitte-ren axolbea baztertu gabe.

* * *

Andereak eta Jaunak,

Euskal Idazkaritzaren izenean, botzik agurtzen zaituztet, bai eta bihotzetik eskerrak bihurtzen dauzkitzutet ezen, gaur hunarat etorritz, Euskara zaindu eta emendatu nahi duzutela, behin eta berriz erakusten duzute.

Bainan zuen guzien baimenarekin, eskerrak gisa berezi batez bihurtzen diozkatet Akademiku eta Euskalzain jauneri, zoinak dira gure aurrean edo aintzinean, Euskararen zerbitzari hoberenak eta argituenak. Denen izenean, eskerrik eta zorionik beroenak zueri, Euskalzaindiko jaun ohoragarriak.

Hemen bilduak gera Euskal Idazkaritza deritzan batzordearen barneetan, Euskarari batasun gehiagoren emaiteko xedeaz beterik. Zuek bildu zaituztegu, idazle ta irakasle jaun-andereak, zuek duzuelakotz, Euskalzaindiaren itzulian. Euskara gehienik zabaltzen, hedatzen, osotzen eta batetaratzen ahal.

Bi hitz Euskal Idazkaritzaz.

Horrelako batasun baten altxatzeko asmoa lehenik izan zuen, duela zombait urte, Narbaitz jaun kalonjeak.

Euskararen alde lan egiten zuten jende ta batzorde guzien meneko eman nahizan zuen bil toki bat, laneko tresna bat, denen laguntzailea eta batasunaren lokarria edo oiñarria zitakeena.

Ez bazen segidan bururatu ere xede hori, etzen arras ahantzia izan. Eiki, xaz beren gain hartu zuten mugaren bi aldeetako Euskalzale batzuek. Bazter guzietan laguntzak bilaturik, dirurik gabe deus ez baititake, alabainan, biltoki eta batzorde hau partzuergoan moldatu zuten.

Beren laguntza ekarri daukuteneri, bihotzetik eta zinez eskerrak zor diozkategu, zeren hurak gabe idazkaritza hau etzen sortuko.

Huna beraz gure bil tokia, den bezala. Gauza guti balin bada, oraino gutiago izanik, agian denen laguntzarekin, bihar gehiago izanen da. Sortu bezain sarri, edozoin euskal batasunen meneko jarri zen, eginbide zuen bezala, eta bere gain ere lan egin du, bereziki Euskararen sailean.

Gure mintzaiaren osotzen eta batetaratzen laguntzeko, eskualki guziak elgarri ezkonduz, aste oroz hemen biltzen dira Euskalzale batzu eta bereziki SOLAUN, MONZON, TXILLARDEGI, Eneko IRIGARAI, ANDIAZABAL eta IDIART jaunak.

Euskal probintzi eta Alderdi gehixenetako ordariak batzar hortan ikusten ditugu, gaur zuen artean bezala, Euskaltzaindiko jaun batzu tarteka laguntzerat etorri zauzkigu, eta gehixenek ardura beren asmoak eskutitzez bialdi dauzkigute.

Eta huna nun etorri zeraten, Euskal-Herri guzitik, Euskararen maitasunak bulkaturik, elgarrekin batasunerako bideetan ibiltzeko nahi sainduarekin.

Batasuna, Euskaldunen betiko ametsa eta nahikaria... Batasuna, harri zaharretan eta erredoletan, bai eta behinere baino gehiago, euskal bihotzetan barna sartua den helburua... Batasuna, Euskal Idazkaritzak zuekin Euskaltzaindiaren inguruan, bilatzen duen xedea...

Batasuna, oroz gainetik eta lendabizikorik, gure mintzaia maitean finkatu behar dugun oiñarria... Batasuna izan dadila, gaur eta gero ere, gure griña, gure kezka, gure arrangura lehena. Batasunari esker, agian luzaz biziko dira gure populua, gure Herria, gure Aberria, beste populua, Herri eta Aberri ororen artean.

Bai, gora Euskara eta Euskal-Herria! Bizi ditela beti, Euskaldunen zerbitzari.

Jean-Louis DAVANT
(Baionan 1964-eko Agorilaren 29-an)

EUSKAL IDAZKARITZA

14, Kordelieren karrika

BAIONA

Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak

(1964-eko Agorrillaren 29-30)

Baiona'ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak.

Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen has-teko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.

IDAZKARITZAKO HIZKUNTZA SAILLAK.

IDAZKERA

- « X » – goxo, xamur, xede, xekatu eta abar onartzen dira.
« sh », « ch », « ss », « s̄ », eta abar, baztertzen dira.
- « TX » – etxe, atxiki, amatxo, zakurtxo, txiki eta abar onartzen dira.
« tch », « t̄ », « ch » ea abar baztertzen dira.
- « J » – jin, jan, jario, josi, jarri, jauzi, eta abar onartzen dira. – Nahiz eta euskalki guzietan soinu berbera ez izan.
- « RR » – elurra, egurra, irri, farre, zoragarri, arrunt eta abar onartzen dira.
« r̄ » baztertzen da.
Hitz bukaeran « r » idatziko da beti : haur, ur, ar, zur, elur; nahiz batzutan « rr » eman (egurra, arra, elurra), eta beste zenbait aldiz « r » (nori, ura, ora).
Elurr, atorr, zakurr, eta honelakoak baztertzen dira.

BUSTIAK.

Palatalizazio edo bustiera deritzan fenomenoia, letra bikoiztuz idatziko da.

LL – llabur

DD – Maddalen

TT – ttaka-ttaka, pittarra, aittitta, pottoka.

« l̄ », « d̄ », eta « t̄ » baztertzen dira.

« NB » eta « NP »

Nahiz « mb » eta « mp » esan, « nb » eta « np » idatziko da: enparantza, denbora, enbata, baldinba, eta abar.

« **Ñ** » eta « **ILL** »

Euskalki batean « in » eta « il », eta beste batean « iñ » eta « ill » esaten diran hitzak, beti aurretikako « i » horrekin idatziko dira:

Baino : baiño (ez « baño »).

Oilo : oillo (ez « ollo »).

Arraina : arraiña (ez « arraña »)

« **H** »

Nahiz euskalki batzuetan letra hau ez esan hitzegitean, idazkeran onartu egiten da; « H » -a gorde duten euskalkien forma eredutzat harturik : Hitz, handi, hodei, hil, hartu eta abar.

Euskaldun askok « H » hori nun dagoen ez dakielako, epeka joatea erabakitzen da.

1) **Lehenengo epe batean :**

a) Bokal berdinen artean « H » dagonean, idatzi egingo da.

Nahastu, mihi, eta abar. (Ondoren doa hitz hauetarik erabillien lerrokada bat).

b) Bi adiera nahas ditezkeanean, berealitik idatziko da « H »-kin : Hori-ori ; hura-ura ; ohol-ola ; haur-ahur eta abar.

2) **Epe baten buruan:**

Gainerako « H »-ak idatziko dira. Baina bitarte huntan bi idazkerak onartzen dira : Hartu edo artu ; handi-andi; ahizpa-aizpa eta abar.

« **KH** », « **LH** », « **NH** », « **ÑH** », « **PH** », « **RH** », « **TH** »

K, L, N, Ñ, P, R, eta T idatziko da : Bekatu, alaba, senar, Aiñarbe, epe, eri, eta urte idatziko da; nahiz xubereraz, baxenabarreraz edo lapurteraz bekhatu, alhaba, senhar, Aiñharbe, ephe, erhi, eta urthe esan. – Erabaki hau bidea erreztutzearen alde hartzen da, eta irakurtzean zailtzen ez duelako.

BALDINTZAKO « BA »

Lotuta idatziko da : Baldin banator, nere amak baleki, ezkontzen bazera, gertatu balitz, baldin esan balute.

BAIEZTUTZEKO ETA UKATZEKO « BA » eta « EZ »

Bereiz edo aparte, idatziko dira :

Ba dakit, ba datoz, ba zekien, ba dakartzu, ba daude.

Ez dakit, ez datoz, ez zekien, ez dakartzu, ez daude.

Nahiz hauek esan, itzegiterakoan : « eztakit », « eztatoz », « etzekien », « eztakartzu », « eztaude ».

« **BAIT** »

Lotuta idatziko da : Baitakit edo baidakit, baitzekien edo baizekien, bai-kiñan edo baigiñan, eta abar.

DEKLINAZIO

A)

mendi -
mendi - K
mendi - rI
mendi - rEN
mendi - rEKIN
mendi - rENTZAT
mendi - Z

mendi - TAN
mendi - TAKO
mendi - TARA
mendi - TATIK

mendi - rIK
mendi - TZAT

mendi - A
mendi - AK
mendi - ARI
mendi - AREN
mendi - AREKIN
mendi - ARENTZAT
mendi - AZ

mendi - AN
mendi - KO
mendi - RA
mendi - TIK

mendi - AK
mendi - EK
mendi - EI/ERI
mendi - EN
mendi - EKIN
mendi - ENTZAT
mendi - EZ/ETAZ

mendi - ETAN
mendi - ETAKO
mendi - ETARA
mendi - ETATIK

Hunen arabera : A, E, I, O, eta U -z bukatzen diran hitzak : baratza, zubi, aro, piku

a + a = A

a + e = E

e + e = EE

ONGI : hiru etxetan, zenbait etxeren atzean, baratzen, zubiak.

GAIZKI : hiru etxen, zenbait etxeen atzean, baratzean, zubik.

B)

haran -
haran - eK
haran - I
haran - EN
haran - EKIN
haran - ENTZAT
haran - eZ

haran - eTAN
haran - eTAKO
haran - eTARA
haran - eTATIK

haran - IK
haran - TZAT

haran - A
haran - AK
haran - ARI
haran - AREN
haran - AREKIN
haran - ARENTZAT
haran - AZ

haran - eAN
haran - eKO
haran - eRA
haran - eTIK

haran - AK
haran - EK
haran - EI/ERI
haran - EN
haran - EKIN
haran - ENTZAT
haran - EZ/ETAZ

haran - ETAN
haran - ETAKO
haran - ETARA
haran - ETATIK

Hunen arabera : a) kontsonantez bukatzen diran hitzak :

ur, zillar, haitz, ots...

b) diptongoz bukatzen diranak : ai, ei, oi, ui, au, eu :
zelai, hogoi, gau, ...

ONGI : hiru haitzetan zombait egunetan, zelaiean, gaueko, ...

GAIZKI : hiru haitzean, zombait egunen, zelaian, gauko, ...

OHAR BATZUK

1) Bizidunak (gizona, abereak, piztiak) berdin deklinatzen dira, II-ekoak ezik.

A')

seme -	seme - A	seme - AK
seme - K	seme - AK	seme - EK
seme - rI	seme - ARI	seme - EI/ERI
seme - rEN	seme - AREN	seme - EN
seme - rEKIN	seme - AREKIN	seme - EKIN
seme - rENTZAT	seme - AZ	seme - EZ/ETAZ
seme - Z	seme - ARENGAN	seme - ENGAN
.....
seme -rENGANA	seme - ARENGAN	seme - ENGANA
seme - rENGANDIK	seme - ARENGANDIK	seme - ENGANDIK
seme - rIK		
seme - TZAT		

B')

gizon -	gizon - A	gizon - AK
gizon - eK	gizon - AK	gizon - EK
gizon - I	gizon - ARI	gizon - EI/ERI
gizon - EN	gizon - AREN	gizon - EN
gizon - EKIN	gizon - AREKIN	gizon - EKIN
gizon - ENTZAT	gizon - ARENTZAT	gizon - ENTZAT
gizon - Z	gizon - AZ	gizon - EZ/ETAZ
gizon - ENGAN	gizon - A(REN)GAN	gizon - ENGAN
.....
gizon - ENGANA	gizon - A(REN)GANA	gizon - ENGANA
gizon - ENGANDIK	gizon - A(REN)GANDIK	gizon - ENGANDIK
gizon - IK		
gizon - TZAT		

2) IZEN NAGUSIAK : Ahazparne, Eibar, Maite, Itziar. II saila aldatzen da ; gainerakoak, indefinidoak bezelaxe.

Ahazparen' N	Maddi'rENGAN
Ahazparne' KO	
Ahazparne'rA	Maddi'rENGANA
Ahazparne' TIK	Maddi'rENGANDIK
Eibar'eN	Olatz'ENGAN
Eibar' KO	
Eibar' A/ERA	Olatz'ENGANA
Eibar' TIK	Olotz'ENGANDIK

ADITZA

A) AUXILIAR INTRANSITIVO :

Yo soy

NAIZ
HAIZ
DA
GERA
ZERA
ZERATE
DIRA

Yo era

NINTZAN/NINTZEN
HINTZAN/HINTZEN
ZAN/ZEN
GIÑAN/GINEN
ZIÑAN/ZINEN
ZIÑATEN/ZINEZTEN
ZIRAN/ZIREN

Si yo fuera

BANINTZ
BAHINTZ
BALITZ
BAGIÑA/GINE
BAZIÑA/ZINE
BAZIÑATE/ZINEZTE
BALIRA/BALIRE

Yo sería

NINTZAKE
HINTZAKE
LITZAKE
GIÑAKE/GINTAZKE
ZIÑAKE/ZINTAZKE
ZIÑAKETE/ZINTAZKETE
LIRAKE

B) AUXILIAR TRANSITIVO :

Yo lo he

DUT
DUK/N
DU
DUGU
DUZU
DUZUTE/DUZUE
DUTE

Yo le había

NUEN
HUEN
ZUEN
GENUEN
ZENUEN
ZENUTEN
ZUTEN

Yo los he

DITUT
DITUK/N
DITU
DITUGU
DITUZU
DITUZUTE/DITUZUE
DITUZTE

Yo los había

NITUEN
HITUEN
ZITUEN
GENITUEN
ZENITUEN
ZENITUZTEN
ZITUZTEN

BOKAL BIKOITZEN ARTEKO « H »

I

aaide.....	pariente, parent.....	AHAIDE
al izan, aal izan.....	poder, pouvoir.....	AHAL IZAN
alge, aalge.....	vergüenza, honte.....	AHALGE
arra, aarra.....	bronca, querelle.....	AHARRA
ate, aate.....	pato, canard.....	AHATE
aztu, aaztu.....	olvidar, oublier.....	AHANTZI/AHAZTU
ari, aari.....	carnero, mouton.....	AHARI
bi, bii.....	grano, grain.....	BIHI
beeko, beetik.....	de debajo, d'en bas.....	BEHEKO/BEHETI
intz, iintz.....	rocio, rosée.....	IHINTZ
len, leen.....	antes, antérieur.....	LEHEN (astelehen)
ler egin, leer egin.....	reventar, éclater.....	LEHER EGIN
mai, main.....	mesa, table.....	MAHAIN
mats, maats.....	uva, raisin.....	MAHATS
me, mee.....	delgado, mince.....	MEHE
mi, min.....	lengua, langue.....	MIHI
naro.....	abundante, abundant.....	NAHARO
nasi, naastu.....	revolver, mélanger.....	NAHASI
ol, ola, oola.....	tabla, planche.....	OHOL
oore.....	honor, honneur.....	OHORE
oin, ooin.....	ladron, voleur.....	OHOIN
xe, xee.....	menudo, menu.....	XEHE
zar, zaar.....	viejo, vieux.....	ZAHAR

HASIERAKO « H » BATZUK

II

abaila.....	honda, fronde.....	HABAILLA
abarrots, arrabots.....	ruido, bruit.....	HABARROTS/ HARRABOTS
abe.....	viga, poutre.....	HABE
aga.....	pértiga, porche.....	HAGA
agin.....	muela, molaire.....	HAGIN
ain.....	tan, aussi.....	HAIN (hainbeste)
aize.....	viento, vent.....	HAIZE
aizkora.....	hacha, hache.....	HAIZKORA
amar.....	diez, dix.....	HAMAR
an.....	allí, là-bas.....	HAN
andi.....	grande, grand.....	HANDI
aragi.....	carne, chair.....	HARAGI
aran.....	valle, vallée.....	HARAN
aritz.....	roble, chêne.....	HARITZ
artu.....	tomar, prendre.....	HARTU
arri.....	piedra, pierre.....	HARRI

edatu.....	extender, étendre.....	HEDATU
egal.....	ala, aile.....	HEGAL
egi.....	borde, bord.....	HEGI
eldu.....	llegar, arriver.....	HELDU
emen.....	aquí, ici.....	HEMEN
erbal.....	débil, faible.....	HERBAL
erdoil.....	roña, rouille.....	HERDOIL
eriotza.....	muerte, mort.....	HERIOTZA
ertsi.....	estrecho, étroit.....	HERTSI
erra.....	odio, haine.....	HERRA
erren.....	cojo, boiteux.....	HERREN
errestatu.....	arrastrase, se traîner.....	HERRESTATU
esi.....	cierre, clôture.....	HESI
ezi.....	domar, dompter.....	HEZI
eze.....	húmedo, humide.....	HEZE
ezur.....	hueso, os.....	HEZUR
i.....	tú, toi.....	HI (hire/heure)
igitu.....	moveuse, bouger.....	HIGITU
iguindu.....	repugnar, répugner.....	HIGUINDU
il.....	morir, mourir.....	HIL
illabete.....	mes, mois.....	HILLABETE
iri.....	ciudad, ville.....	HIRI
iru.....	tres, trois.....	HIRU
its.....	tristón, terne.....	HITS
itz (itzegin).....	palabra, mot.....	HITZ (hitzegein)
obe.....	mejor, meilleur.....	HOBE
oben.....	falta, faute.....	HOBEN
obi.....	fosa, fosse.....	HOBİ
odei.....	nube, nauge.....	HODEI
ogei.....	veinte, vingt.....	HOGEI
ondatu.....	destruir, détruire.....	HONDATU
ori, or.....	ese, ahí, celui, la.....	HORI/HOR
ortz.....	diente, dent.....	HORTZ
osin.....	abismo, gouffre.....	HOSIN
osto.....	hoja, feuille.....	HOSTO
ots.....	ruido, bruit.....	HOTS
otz.....	frío, froid.....	HOTZ
ura.....	aquel, celui-là.....	HUR
unkitu.....	tocar, toucher.....	HUNKITU
urbil.....	cerca, près.....	HURBIL
urri.....	escaso, insuffisant.....	HURRI
urrupatu.....	dar un trago, prendre une gorgée.....	HURRUPATU
uts.....	vacío, vide.....	HUTS

BAIONAKO BILTZARRA

« EMAN TA ZABALZAZU »